



## Bi aste Euskaraldirako

Ahobizi edo belarriprest gisa izena emateko aukera zabalik dago oraindik; esate baterako, herriko puntu batzuetan dabilen IGUNE ibiltarian / 8

TXINTXARRI



## Askotariko ekintzak agendan

Antzerkiak, musika emanaldiak eta haur zein helduentzako filmak izango dira, besteak beste, azaroko kultur ekitaldiak / 6

**2021. urteko ordenantza fiskalak izoztea erabaki du udalak, ezohiko Udalbatzarrean / 2**

**Ariguneetan parte hartuko duten ahobizi eta belarripresten testigantzak jaso ditu TXINTXARRI-K / 9**

**COVID-19ari aurre egiten laguntzeko 46.109 euroko diru laguntza lerro bat aurkeztu du udalak / 3**

**Maialen Chourraut piraguistarekin solastu gara Paueko Munduko Kopako proba baino lehen / 10**

**Lasarte-Oriako Ostalaritzak manifestaziora deitu du azaroaren 7an, larunbata, 17:30ean / 4**

**Aitor Manso gidaria bere mailako Euskadiko Mendiko Igoeren Txapelketan hirugarren izan da / 11**

**Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan**

Merkatuko preziorik onenak bermatzen dizkizugu!

**barnE**

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA  
Bulegoa: Muebles Iturbe  
www.minialmacenes-barne.com



Ordenantza fiskalak onartu ziren ez ohiko udalbatzarrean. TXINTXARRI

# Zerga eta tasak onartu dira

Udalbatzarrak 2021. urteko zergak eta tasak izoztea adostu du urri amaieran. Emendakin bakarra onartu da, EAJk eskatutako uraren zergaren %5eko beherapena. Hurrengo urtera begira, mahai teknikoak martxan jarriko ditu Udal Gobernuak

## Txintxarri

Lasarte-Oriako udalbatzarra batu egin zen urriaren 30ean; batzuk presentzialki, besteak birtualki, ezohiko udalbatzarrean. Mahai gainean, besteak beste, 2021. urteko ordenantzak egon ziren.

Aho batez eta eztabaidarik gabe onartu ziren lehen bi puntuak. Lehena, udalbatzarraren deialdiaren urteko gabezia izan da; bigarrena, berriz, merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektoreetan ekonomia suspertzeko ezohiko laguntzen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea, eta horretarako jarduerak prestatzeko inbertsioak egitea.

Jarraian, Ogasun Batzordean onartu ez ziren 2021. urteko ordenantzen zazpi emendakinekin heldu diete alderdiek; EH Bilduren hiru eta EAJren lau.

EAJk herritarren, zein merkatarik, ostalari eta enpresen uraren zergari proposatutako

moldaketak izan dira eztabaida gehien sortu zutenak.

EAJk herritarren zergan %5ren beherapena eskatu du Añarbeko Urak ere ehuneko hori jaitsi baitio udalari. PSE-EE ez da horren alde agertu, Añarbek hartutako erabakia udalen presioa kentzeko proposamena dela argudiatuz. "Oraindik onartu ez den neurri baten gainean erabaki bat hartzea ez da logikoa", gaineratu zuen Agustin Valdivia alkateak.

EH Bilduk eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosek, ordea, neurriaren alde egin dute eta emendakina onartu da. EAJk eskerrak eman zizkion ELOP

**ALDERDI BATZUEK ORDENANTZAK EZTABAIDATZEKO MAHAI BAKARRA IZAN DUTELA SALATU DUTE**

alderdiari batzordean emandako bozka aldatzeagatik.

Bestalde, merkatarik, ostalari eta enpresen uraren eta zaborraren zergari %10a jaitea eta 5. edukiontzia erabiltzen duten herritarrei zerga izoztea eta erabiltzen ez dutenei %3a igotzea proposatu zituen alderdi jeltzaleak. Ez ziren aurrera atera.

EH Bilduk hiru emendakin aurkeztu zituen, baina ez zen bat bera ere onartu; etxebizitza hutsak dituzten herritarrek Ondasun Higiezinaren gaineko zergan %50 gainordaina izatea, 5. edukiontzia erabiltzen duten herritarrek zergan %30eko hobaria izatea eta Lasarte-Oriako irabazi-asmorik gabeko elkarteek udal instalakuntzen doako erabilera egitea.

**Eztabaidarako gune bakarra** EH Bilduko bozeramaile Jon Martinek zaborren tasaren moldaketaren azalpenean, zerga

eta tasak eztabaidatzeko leku bakarra udalbatzarra izan dela salatu zuen. Gainera, eztabaida politikoa ez egitea ere leporatu zion alderdi sozialistari. "Aspektu teknikoak bakarrik azaltzen ari zarete emendakinak atzera botatzerako orduan eta debate politikoa ekiditen ari zarete".

Eta, ordenantzen espediente osoa onartu baino lehen, EAJk ordenantzen lanketa eza aurpegiatu zion PSE-EEri. "Azken urteetan egin ez duzuen egin duzue aurten, zuzenean ondenantzen prorroga onartu eta ez duzue espediente eguneratu bat aurkeztu. Hori gehiengoa zenutenean ere ez duzue egin".

Gainera, ordenantzak izoztearen modu unilateralean onartzea ere aurpegiatu zion alderdi jeltzaleak. "Aurtengo aurrekontuak luzatzea eta ordenantzak izoztea modu unilateralean onartu dituzue. Gure alderdien arteko akordioaren arabera, negoziatu behar ditugu. Pazientzia agortzen ari zaigu eta mesfidantza ere sortzen digu egoera horrek. 2021. urteko aurrekontuetan hori ez gertatzea espero dugu. Guk lan egingo dugu eta proposamenak aurkeztuko ditugu".

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiak adierazi zuenez, euren helburua bete egin zen: zerga eta tasak ez igotzea. Ordenantzen izozteak udalaren konpromisoa zein den adierazten duela ere uste dute. "Guk egindako kontuen arabera, 100.000 euro gutxiago jasoko ditu udalak zergak izoztuta eta horrek udalaren konpromisoa erakusten du. Eskura dituen tresnak erabili eta bizi dugun egoera herritarrek ahal den modu hobereanean igarotzea ahalbidetzen saiatu delako".

## Zergak eta tasak izoztuta

Ordenantzen onarpenak zerga eta tasa gehienak izoztea suposatzen du. Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak eta Iñigo Zabaleta Ogasun batzordeburuak udalbatzarraren ostean egindako agerpenean azaldu zuten, "herritarrek izan

**ZENBAIT ZERGA ETA TASAK AZTERTZEKO MAHAI TEKNIKOAK JARRIKO DIRA MARTXAN**

ditzaketen zailtasunei erantzuteko apostua egin dugu".

Diru sarrera horiek udalak beharrezkoak dituela onartzen dute, baina herritarrek ez dituzte "kargatu" nahi eta "esfortzu handia" egingo dutela adierazi dute.

COVID-19ak eragindako egoerari aurre egiteko udaberriaren egindako moldaketak indarrean jarraitzen dutela jakitera eman dute. Hala nola, ostalarien terrazen tasaren %100eko hobaria.

Horrez gain, ordenantzetan egin diren bi moldaketa gehiago azpimarratu dituzte.

Batetik, animaliak kaletik jaso eta zaintzeko tasa berria ezarri dute. Jasotzeko zerbitzuaren kasuan, 10,89 euroko tasa ezarri da, eta, egonaldiari eta zaintzari dagokienez, egunean 12,10 euroko tasa txakurrentzat, eta, katuentzat, berriz, egunean 6,05 eurokoa.

Eta, bestetik, zenbait tasa ordaintzeko herritarrek zatikako ordainketa eskatzeko aukera izango dutela jakitera eman dute. "Ordaintzeko moduaren eguneraketa beharrezkoa ikusi dugu".

Herriko alkate Agustin Valdiviak adierazi zuen ezin dela ahaztu zergak eta tasek duten garrantzi udalaren jarduerak eta zerbitzuak mantentzeko eta zerga eta tasen bidez, udal-zerbitzuen kostuak gehiago estaltzea jo beharra dagoela.

Era berean, urteetan egindako eskaera bati erantzuna emango zaiola jakitera eman zuten. Hau da, zergak eta tasak lantzeko mahai teknikoak eratu dira.

EAJk udalbatzarrean adierazi moduan, "bost urte daramatzagu mahai teknikoak eskatzen eta zerga batuk moldaketa sakona behar dutela esanaz. Pozten gara martxan jarriko direla jakiteaz".

"Iazko azaroan, nik zuzendutako udalbatzarrean, onartu zen mahai teknikoak martxan jartzea. Hamar hilabete egin ditut alkatetzan eta azkenean, azaroan martxan jarriko ditugu," azaldu zuen Valdiviak.

Lehen hitzordua azaroaren 23an izango da. Mahai horietan zaborren tasa, Ondasun Higiezinaren gaineko zerga eta kaleko postuen zergak aztertzeko konpromisoa du udalak.

Hala ere, beste alderdiek proposatutako gaiak ere aztertuko direla nabarmendu dute. "Haiek ere mahai teknikoaren parte izango dira".



Udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez eta herriko alkate Agustin Valdivia, prentsaurrekoan. TXINTXARRI

# Pandemiari aurre egiten laguntzeko ekarpena

Diru laguntzen helburua da udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektoreetan ekonomia suspertzeko laguntzak ematea, COVID-19ari aurre egite aldera. Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu du egitasmoa, 46.109 euroekin

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak diru laguntza lerro bat aurkeztu du ostegunean, azaroak 5. Xede nagusia da alor desberdinetan lan egiten duten herriko establezimenduei ekarpen ekonomiko bat egitea, COVID-19ari aurre egiteko hartu behar izan dituzten zenbait neurri finantzatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurune sailak finantzatzeko laguntza lerroa, 46.109 euro bideratuta, oraingoz. Programa, ordea, Lasarte-Oriako Udaleko Sozioekonomia batzordeak kudeatuko duela jakinarazi dute batzorde horretako buru Nuria Fernandezek eta Agustin Valdivia alkateak. "Komertzioei

laguntzeko beste lerro bat da; pandemiagatik moldatu egin behar izan dute jarduna. Gastu horiei aurre egiteko laguntza da".

## 1.500 euro gehienez

Establezimendu bakoitzari emango zaion laguntza ez da 1.500 eurokoa baino handiagoa izango, lerro honen oinarrietan zehazten denez. Zenbatekoa

kalkulatuko da prezio garbiaren gainean, BEZa kontuan hartu gabe. Ekarpene bakarria eskatu ahalko du, ez gehiago, azaroaren 20ra arte, ostiralez. Laguntza programa honetan parte hartzeko epea zabalduko da GAO Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Laguntza jaso nahi dutenek Udal Erregistroan aurkeztu beharko dute dokumentazioa, edo, bestela, telematikoki, Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean: [www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus) atarian. Alkatetzak ebatziko du nortzuk jasoko duten laguntza, eta hilabeteko epean jakinaraziko ditu erabakiak, asko jota.

## Parte hartzeko baldintzak

Diru laguntza horiek eskatu ahalko dituzte udalerriko txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzu pertsonalen sektoreetako pertsona fisiko edo juridikoen, baldin eta hamabost langile edo gutxiago badituzte. Dagokion establezimenduen ustiapenaren titularrak izan beharko du eskatzaileak, eta EJZ Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ondorioetarako milioi bat euro baino beheragoko negozio-zifraren zenbateko garbia izan.

Beste baldintza batzuk ere bete beharko dituzte onuradunek: alarma egoera amaitu ondoren -2020ko ekainaren 19tik aurrera- berriro lanean hasi izana edo lanean segi izana eta altan egotea; COVID-19ari aurre egiteko ekipamendua edo jarduera ekonomikoa egokitzeko inbertsioak egin izana; eta Lasarte-Oriako Udalean zorrik ez izatea, besteak beste. Udalak zehaztu du gutxieneko baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen

"edozein agiri" eskatu ahalko duela "edozein unetan".

Diruz lagundu ahalko diren jarduerak zeintzuk izan daitezkeen zehaztu du udalak agerraldian. 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra arte egin beharko dira horiek.

Jarduera ekonomiko a egokitzeko eta ekipamendua erosteko inbertsioak finantzatzeko lagunduko dute, baldin eta COVID-19ari aurre egiteko erabiltzen ari badira. Esate baterako, lokalak eta lan egiteko moduak egokitu behar izana. Osasun-protokoloak bete behar izateko egin diren inbertsioak eta erosi diren ekipamenduengatik ere bai, eskatu ahalko dute ekarpena herriko komertzioek, baina ez dira finantzatu "maskara, eskularru, mantel, gel hidroalkoholiko eta antzeko materialetan egindako gastuak". Diruz lagundu ahalko dira, ordea, bezeroekiko eta hornitzaileekiko harremanak egoera berrira egokitzeko egin diren inbertsioak eta erosi den ekipamendua.

Udalak azpimarratu du diruz lagundu daitezkeen jarduerak horiek "lotura zuzena" eduki behar dutela COVID-19ari aurre egiteko hartu behar izan diren neurriekin. "Eskabidea egiterakoan argi eta garbi adierazi beharko da hori". Kreditu erabilgarria oraingoz 46.109 eurokoa da, baina baliteke handitzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko sail horrek hala erabakiko balu.

**ESTABLEZIMENDU BAKOITZARI 1.500 EUROKO LAGUNTZA BAT EMANGO ZAIO GEHIENEZ**

**SASKI BELTZA**  
betikoa  
+ Korrikaren katilua  
50+5= 55€

**SASKI BERDEA**  
ekologikoa  
+ Seaskaren egutegia  
60+5= 65€

**SASKI ZURIA**  
berezia  
+ D ereduaren haziak  
70+5= 75€

Nafar hegoaldeko uzta **euskarari puzka**

**URRIAK 24 - AZAROAK 12**

**errigora.eus**

5€ gehigarriak AEK-ri, Seaskari eta Sortzeni bideratuko zaizkie, Korrika, Herri Urrats, eta Sortzenen jala ez egiteak eragin dien diru-galera arintzen laguntzeko.

Saskien balioaren %25 Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara bideratuko da.

**OPARITU ILUNABARRIK GOXOENA**

**Sunset Bastian**

[www.sunsetbastian.eus](http://www.sunsetbastian.eus) | [reservas@sunsetbastian.eus](mailto:reservas@sunsetbastian.eus) | [@ssunsetbastian](https://www.instagram.com/ssunsetbastian)

## Ostalarien eskubideak eta lana aldarrikatzeko, manifestazioa

Lasarte-Oriako Ostalaritzak antolatu du ekitaldia; Okendo plazatik aterako dira 17:30ean larunbat honetan

### Txintxarri

Pandemia hasi zenetik ostalaritzaren sektorea egoera "oso kritikoa" dagoela azpimarratuta, manifestaziora deitu du Lasarte-Oriako Ostalaritza elkarteak larunbat honetan, azaroak 7. Okendo plazan jarri dute hitzordua, 17:30ean. Orain arte jasotako laguntzak "urriak" izan direla kritikatu dute, eta ez dutela "ezer" jaso Eusko Jaurlaritzatik eta Espainiako Gobernutik. "Politikariei dagokie erabaki garrantzitsuak hartzea; euren esku dago herriak bizitza izatea edo ez".

Gogoratu dute ostalaritza izaten ari dela COVID-19ak gehien erasan duen sektoreetako bat. "Gure diru-sarreraren %100 galdu genituen itxialdiak iraun zuen hilabeteetan". Konfinamentua lasaitzen joateak, dena den, ez



Maiatzeko manifestazioa. TXINTXARRI

zuen euren egoera asko hobetu: "Baldintza prekario batzuetan lan egiten ari gara lanpostuak eta negozioak mantendu ahal izateko; batzuek ezin izan dute berriro pertsiana igo". Lasarte-Oriako Ostalaritzako kideen

aburuz, sektoreak ezingo lioke aurre egin bigarren itxialdi bati. "Negozio askok behin betiko itxi beharko lukete eta lanpostu asko suntsituko lirateke". Gure herriko "motore ekonomikoetako bat" da ostalaritza; "450 zuzeneko lanpostu inguru" sortu ditu.

Ostalarien ustez, tabernak eta jatetxeak ixtea ez da bidezkoa, ezta eraginkorra ere. "Orain arte erregistratu diren kasu positiboen %4 baino gutxiagok dute jatorria gure sektorean". Herbehereen adibidea jarri dute: "Herritarrei gomendatzen diete taberna eta jatetxeetan elkartzea, aforoak kontrolatzen direlako eta higiene baldintzak betetzen dituztelako".

Lasarte-Oriako Ostalaritzak eskatu du tabernak eta jatetxeak ez ixtea, eta, "ezinbestean" hori egin behar izanez gero, sektoreari diru laguntza "duin eta eraginkorrak" ematea, bigarren itxialdiari aurre egin ahal izateko. Manifestazioaren antolatzaileek parte hartzerantz animatzen dituzte herritarrak, segurtasun neurriak errespetatuz beti ere.



Kontukantoreen saioa. T. VALLES

### Kontukantoreen eskutik ipuinaren orduaz gozaten

Bea Egizabal eta Cesar Marcosen eskutik, *Ipuinaren ordua* saiora joan ahal izan zuten haurrak –pandemia tarteko, aforoa mugatua zen: hamabi pertsona–kontakizunen munduan murgildu ziren Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian, asteazken arratsaldean. Gogotik gozatu zuten ipuin kontalarien istorio, marrazki eta keinuekin irudimena lantzen.



Herritarrak, Illarraltzuetan. TXINTXARRI

### Pandemia garaian ere, falta direnak gogoratzen

Hutsune batzuk ez dira inoiz betetzen eta zenbait egunetan are presentego izaten dira. Domu Santu Eguna da horietan nagusia. Ohiturari jarraiki, herritar ugari joan zen azaroaren lehen Illarraltzuetan hilerrira falta zaizkienak bisitatzerako. Aurten, ordea, bezperetan joan dira asko ahaide eta lagunak ikustera. Hilarriak lore sorta freskoz beteta zeuden eguerdia baino lehen.

**ikusgaitzak**

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu. Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.

[gipuzkoa.eus](http://gipuzkoa.eus)  
Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpeirik onena.

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA  
ORAIN  
ES futuro

# Bigarren olatua hazi egin da azaro hasieran

Azaroko lehen egunetan oraindik eta positibo gehiago atzeman dituzte Lasarte-Orian. TXINTXARRI-k edizioa itxi duen egunean jakin du asteazkenean 24 kasu detektatu dituztela gurean. Eusko Jaurlaritzak neurri murriztaileagoak ezartzea aztertzen ari da

## Txintxarri

Urria amaierako joera mantendu bakarrik ez, areagotu egin da azaro hasieran EAE osoan, eta baita Lasarte-Orian ere. Edizioa itxi aurretik asteazkeneko datuak kontsultatu ahal izan ditu TXINTXARRI aldizkariak, azaroaren 4koak. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arabera, 24. Urteko hamaikagarren hilabeteko lehen lau egunetan 65 kutsatzeren berri eman dute gure herrian. Tendentzia horri jarraituz gero, azarora izango da pandemia hasi eta orain arteko intzidentzia gehieneko hilabetea –orain arte, urrian atzeman dituzte kasu gehien udalerrian, 218–.

Berri-Buruntza eskualdeko udalerrietan ere jarraitzen dute positiboak atzematen. Gune gorrian egoten jarraitzen dute Andoainek, Astigarragak, Hernanik, Lasarte-Oriak, Urmietak eta Usurbilek. Alegia, 100.000 biztanleko 500 kasu baino gehiagoko intzidentzia tasa izan dute azken hamalau egunetan. 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan egiten dute kalkulu hori, herri bakoitzaren kasuak koloreka sailkatzeko gero, nahiz eta gaur-gaurkoz indarrean dauden neurri murriztaileek EAEko hiru lurralde historikoetako herri guztiei eragiten dien.



Baserriko Produktuen aurtengo azoka bertan behera geratu da. TXINTXARRI

Lasarte-Orian datozen egunetarako iragarrita dauden ekitaldietatik bat bertan behera utzi dute. Behemendik ez du egingo Baserriko Produktuen azokarik aurtun. Azaroaren 14rako zegoen programatuta, larunbatez.

## Neurri are murriztaileagoak

LABI EAEko babes zibileko planaren aholku batzordea ostegun arratsaldean elkartu da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan gaur-gaurkoz indarrean daudenak baino neurri murriztaileagoak ezartzeko, koronabirusaren hedapena

gutxitzen saiatzeko. Edizioa itxi aurretik ezinezkoa izan da TXINTXARRI-rentzat horien inguruan ezer aurreratzea. Badirudi ez dutela etxeko itxialdirik ezarriko oraingo, aukera hori baztertu baitu Espainiako Gobernuak Osasun ministro Salvador Illak. Eusko Jaurlaritzak asteazken arratsaldeko Espainiako Osasun Ministerioaren Lurralde Arteko Osasun Kontseiluan eskatu zuen egun indarrean dagoen dekretua aldatzeko, etorkizunean beharrezkoa balitz etxeko itxialdi hori ezarri ahal izateko.



NEURE KABUZ

JEXUX ARTETXE

## Aberria orain

Zutabea idaztera eseri naizenean gogora etorri zait Xabier Lete, bere heriotzaren hamargarren urtea datorren hilean betetzen delako. Bere olerkien artean miatzen ari naizela, bizi dugun egoeraren aurrean gure baitako sentipen sakonak adierazteko hitz iradokigarriak eskaintzen dizkigula iruditzen zait.

'Normaltasun berria' deitu genion egoera hura sendotzearen itxaropenez ginela, gauzak bapatean aldatu ziren eta pandemiaren tunelean sartu ginen berrira. Orainago, alde guztietatik harrapatuta gaude, aterabiderik asmatuko ote den itxaropenik txikienari eutsita bada ere. Gaurkoa atzokoa baino amorragarriagoa datorrenez, "biharraren emaitza etsiperatuki antsiatu dugularik".

Azken esaldia Leteren 'aberria orain' izeneko poematik atera dut. Gutako askok ere aberriaren oraingotasuna dugu galdekizun. Aurrena, biharko itxaropen hori ez delako hain kontsolagarria orainaldian balizko soluzioaren zai inolako ardurarik hartu gabe geratzeko. Gainera, garai lakatzenetan frogatzen delako aberriaren mardultasuna nolakoa den. Horratik, aberriari buruzko galdera geure buruari zuzenean egindako galdera baita. Geronek, norbanako eta talde bezala, erantzun behar duguna.

Aberria etxean eta auzoan irudikatzen da ondoen. Har dezagun auzoa. Bertan, auzokide garenok elkarrekiko ditugun obligazioak beteta soilik lor daiteke guztiontzako ongia dena. Eta ondasun komunei dagokienean, auzoarekiko ditugun ardurak ez dira norberaren gogoaren arabera hautatzekoak. Aitzitik, auzoari zor dizkiogunak betebeharrak individual eta kolektiboak dira aldi berean. Auzoan zein aberrian, osasun publikoa da orain arriskuan daukaguna. Bakoizka eta taldeka erantzun behar dugu. Izan ere, kontuan hartu gabe gure ondasun komun baliotsuena dela kinkan dagoena oso zail egingo zaigu larrialdi honetarik ateratzea. Iragan hurbilean banatu gaituzten haustura mingarriak ahaztu behar ez badira ere, elkarrekin eta elkarren alde aritu behar dugu. Xabier Lete zenak ere esango zukeen bezala: 'Maitasunak batzen ez bagaitu, elkartu gaitzala ikara larriak'.

## Mendeko pertsonak zaintzen dituztenei zuzendutako kurtsoa

Hiru eguneko ikastaro bat eskainiko du Lahar Elkargoak Lasarte-Orian, menpeko pertsonak zaintzen dituztenei zuzendua. Landuko dute portaeraren nahasmenduak nola kudeatu.

Azaroaren 18an eta 25ean eta abenduaren 2an eskainiko du kurtsoa Coro Dominguez psikologoak Mirentxun, doan.

Pandemiak eraginda, plaza kopuru maximoa zortziko izango da. 663 05 72 23 telefonora deitu behar da izena emateko, edo [formakuntza@laharelkargoa.org](mailto:formakuntza@laharelkargoa.org) helbidera idatzi.

## Usurbilgo Lanbide Eskolan ikastaroak azarotik aurrera

Langile eta langabetuentzat kurtso sorta oparoa prestatu du lanbide eskolak; izena ematea doakoa da

## Txintxarri

Azarotik aurrera kurtsoak eskainiko ditu Usurbilgo Lanbide Eskolak langile eta langabetuentzat, hainbat arlotan: fabrikazio mekanikoan, administrazioan eta kudeaketan, elektrizitatean eta

instalazioan eta mantenuan, besteak beste. Ostalaritzaren inguruko ikastaro bat ere prestatu dute. Informazioa eskuratu daiteke 943 36 46 00 (luzapena, 78) telefonora deituta, [cursos@lhusurbil.eus](mailto:cursos@lhusurbil.eus) helbidera idatzita edo Usurbilgo

Lanbide Eskolaren web orrialdean: [www.lhusurbil.com](http://www.lhusurbil.com).

Fabrikazio mekanikoa lantzeko CNC programazioa, Metrologia eta CAM ikastaroak eskainiko ditu lanbide eskolak. Administrazioa eta kudeaketa atalean, beste hiru: Artxiboen kudeaketa, Komunikazioa eta Bulegotika. Elektrizitatearekin lotura duten ikastaroak izango dira Hidraulika, Oinarrizko elektrizitatea eta IOT. Instalazio eta mantenuan, berriz, honako hauek prestatu ditu Usurbilgo



Ikasle talde bat. USURBILGO L.E.

Lanbide Eskolak: Igogailuen instalazioa, Igogailuen mantenua, Soldadura eta Instalazio termikoen mantenua.

Aurtengo ikasturtean kurtso bat eskainiko du lanbide eskolak ostalaritzaren alorrean: Ostalaritza-sukaldaritza enpresetan bezeroaren arreta. Ikastaro horretan azaroaren 30etik aurrera izena eman ahaliko dute langile zein langabetuek. "Etorkizunean ere ostalaritza arloko formakuntza indartu nahi du Usurbilgo Lanbide Eskolak".



Asteazken goizean aurkeztu dute Ttakun Kultur Elkarteko lehendakari Mari Karmen Ormazabalek eta Euskara batzordeburu Jon Antxordokik igandeko bertso saioa. TXINTXARRI

## Udaberriko goxotasun berarekin girotuko da, igandean, kultur etxea

Asteazken goizean egin dute 'Udaberriko bertso saioa udazkenean' ekitaldiaren aurkezpena, Ttakun Kultur Elkartearen atarian. Igande honetan izango da bertso saioa, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxeko areto nagusian. Sarrerak, agortu ezean, igandera arte egongo dira salgai 5,50 euroren truke

### Txintxarri

Ttakun Kultur Elkartea eta Lasarte-Oriako Udalak urtero antolatzen duten Udaberriko bertso saioa udazkeneko bihurtu da aurten. Covid-19ak eragindako egoera medio, bertan behera utzi behar izan zuten antolatzaileek ekitaldia, eta, orain, igande honetan arituko dira Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholtza gainean.

Ane Labaka, Miren Artetxe, Miren Amuriza eta Alaia Martin bertsolariak, Amaia Agirre gai-jartzailea, eta Gari Otamendi eta Araitz Bizkai musikariak arituko dira jendaurrean. Bertsoa eta musika izango dira protagonista nagusiak oholtzan, baina "sorpresatxo bat edo beste" izango dela ere aurreratu du Amaia Agirre gai-jartzaileak. "Bertsoaz gain, ahalegina egingo dugu beste kultura diziplina batzuk ere tartekatu daitezen bertso-saioan".

Genero ikuspegiaren ildotik jarriko ditu Agirrek, lanean lau

bertsolariak. "Ohiko bertso saioetan ez bezala, lizentzia txiki bat hartzen dugu, saio hauek betaurreko moreak jantzita prestatzeko. Horrek ez du esan nahi, noski, lau bertsolari emakumeen paperean arituko direnik bertsoetan, baina genero ikuspegiaren inguruko gaiez aritu beharko dira, tokatzen zaien rolean sartuta".

### Doinuak adostuta, gaien ez

Agirrek TXINTXARRI-ri aurreratu bezala, bertsoarako gaiak genero ikuspegiaren bueltan ibiliko dira, baina bertsolari bakoitzak, zehazki zeren inguruan kantatu beharko duen berak bakarrik daki. Doinuak, berriz, elkarrekin adostuta,

### GENERO IKUSPEGIA ARDATZ HARTUTA JARRIKO DITU BERTSOTAN, AGIRREK, LAU BERTSOLARIAK

zehaztuta dituzte dagoeneko, eta jakinarazi duenez, "dozena bat" doinurekin abestu eta osatuko dute igandeko bertsoaldia.

Ordu eta erdiko saioa izango dela aurreikusten du Agirrek, eta orotara, 11 bertso ariketekin osatuko dute bertso saioa. Gaineratu duenez, "konplizitaterako eta babeserako gune handiak" izaten dira igandekoa bezalako saioak: "esperimentatzeko plazak".

Igandean, iluntzeko 19:00etan izango da bertso saioa eta sarrerak kultur etxeko harreraren edo Kutzabanken erosi ditzakete interesatuek, 5,50 euroren truke. Igandera arte egongo dira salgai, beti ere aurrez denak agortzen ez badira.

### Euskaraldiaren stand-a

Bi aste eskas geratzen dira aurtengo Euskaraldiari hasiera emateko. Hori dela-eta, norbanakoen izen ematearekin murgilduta dabil egitasmoa, eta

lasarteoriatarrek ere ari dira izena ematen. Azken egunak aprobetxatu eta ahalik eta ahobizi eta belarriprest gehien biltzeko asmoz, Lasarte-Oriako Euskaraldiako kideak igandeko bertso saiora gerturatuko dira izen emateak egiteko eta etxeko balkoietan eskegitzeko banderak ere salgai izango dituzte erosi nahi dituenarentzat.



### Azaroako kultur agenda

**Azaroaren 6:** Okendo Zinema Taldearen eskutik, *Las niñas* filma. 22:00etan; sarrerak 5,50 euro.

**Azaroaren 7:** *Kaskarot* antzerki familiarra. 17:00etan; sarrerak 3,80 euro.

**Azaroaren 8:** *Udaberriko bertso saioa udazkenean*. 19:00etan; sarrerak 5,50 euro.

**Azaroaren 11:** *Ernani* opera digitala. 19:00etan; sarrerak 7,50 eta 9,00 euro.

**Azaroaren 14:** *Losser* helduentzako antzerkia. 20:00etan; sarrerak 5,50 euro.

**Azaroaren 15:** *Boonie bears: abentura historiaurrean* haurrentzako filma. 17:00etan; sarrerak 3,80.

**Azaroaren 19:** Zinegoaren proiektzioa. 19:30etan; doakoa

**Azaroaren 20:** Okendo Zinema Taldearen eskutik, *Ane* filma. 22:00etan; sarrerak 5,50 euro.

**Azaroaren 21:** Literatur lehiaketako sari banaketa. 12:00etan; doakoa.

**Azaroaren 21:** XVII. akordeoi jaialdia. 19:00etan; sarrerak 5,50 euro.

**Azaroaren 22:** *Cholitas* helduentzako zinema. 19:30etan; sarrerak 5,50 euro.

**Azaroaren 22:** Alboka abesbatzaren Santa Zezilia eguneko kontzertua. 20:00etan; doakoa.

**Azaroaren 26:** Beldur Barik lehiaketako sari banaketa. 19:00etan; doakoa.

**Azaroaren 27:** *Mi tercer acto* helduentzako antzerkia. 19:00etan; sarrera 5,50 euro.

**Azaroaren 28:** Jalguneren XIV. jaialdia. 18:00etan; doakoa.

**Azaroaren 29:** *Emazte* musika taldearen kontzertua. 19:30etan; sarrera 12,00 euro.



Dantza garaikide emanaldia eskaini du Doos Colectivo-k Manuel Lekuonan. TXINTXARRI

# Gorputzaren mugimenduak

## Doos colectiboren emanaldia

Dantza garaikideak hartu zuen larunbatean kultur etxeko agertokia. Doos Colectivo-k Eva Guerrero sortzaile bilbotarraren bi piezak osatutako ikuskizun labur bat ekarri zuen. Hogei bat lagun besterik ez ziren animatu hiru ordu laurden inguru iraun zuen emanaldia ikustera.

*Gorpuztu* lanean Leire Otamendi dantzariak metamorfosi bat bizi du. Kimono gorria erantzi eta saskia buruan jarrita, animalia bilakatzen joan zen gutxika, mugimenduz mugimendu.

Ondoren, Vincent-Rene Lortiek zuzendutako *The man who traveled nowhere in time* bideoa bota zuten pantailan. Inguruan dena mugitu eta aldatzen dela ikusten du protagonistak, baina bera beti berdin mantentzen da.

Amaitzeko, Otamendi oholtzara bueltatu zen, oraingoan, Aritz Lopez dantzaria lagun zuela, *El fin de las cosas* antzezteko. Maitasun istorio baten gorabeherak irudikatu zituzten, batak bestea ukitu edo eraginda harremana nola eraldatzen den erakutsiz.



Kimono gorria erantzi eta saskia buruan jarrita, animalia bilakatzen da. TXINTXARRI

*Gorpuztu* lanean Leire Otamendi dantzariak metamorfosi bat bizi du. TXINTXARRI

Maitasun istorio baten gorabeherak irudikatu dituzte oholztan. TXINTXARRI

Aritz Lopez dantzaria lagun, *El fin de las cosas* antzeztu dute Manuel Lekuonako agertokian. TXINTXARRI

# IGUNE ibiltaria, herrian barrena

Azaroaren 20an hasiko da Euskaraldiaren bigarren edizioa. Hizkuntza-ohiturak astintzeko ahobizi edo belarriprest izan nahi duten herritarrek IGUNE ibiltaria izeneko postuan izena eman dezakete; herriko zenbait puntutara joan daitezke horretara

## Txintzarri

Hasi eta berehala, ohar bat, irakurle: duela bi urte ahobizi edo belarriprest izan bazinen Euskaraldian, eta aurtengo edizioan ere hizkuntza-ohiturak astindu nahi badituzu, izena eman behar duzu berriro. Puntu finko batzuetan Euskaraldiaren kutzak topatuko dituzu; online ere apuntatu zaitezke [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) web orrialdean; edo QR kode bat mugikorrarekin eskaneatuta, esate baterako.

Egun hauetan kaletik ibili bazara, ziurrenik ikusiko zenuen bizikleta bat herria zeharkatzen.

IGUNE ibiltaria da, Ttakun KEk eta Lasarte-Oriako Udalak abian jarri duten egitasmo berria, azaroaren 20an hasiko den Euskaraldian izena emateko beste modu bat. Photocall eta guzti!

## Bost gune

Okendo plaza, Maialen Chourraut kiroldegia, Andatza plaza, asteazkeneko egiten den azoka, Manuel Lekuona kultur etxea eta Euskotren geltokia. Puntu horietan ari da izen-emateak hartzen eta Euskaraldiaren inguruko informazioa ematen IGUNE ibiltaria urri amaieratik;

aurreneko kilometroak egin ditu egun hauetan. Udazken betean gauden honetan, eguraldiak ez du beti laguntzen, baina hala ere gero eta herritar gehiago animatzen ari dira ahobizi edo belarriprest rola hartzera, bi aste barru hasiko den ariketa sozialerako. Euskaraldian parte hartzeko gakoa ez baita gaitasuna, jarrera baizik.

IGUNE ibiltarian izena emateaz gain, posible da etxeko balkoietan jartzeko banderolak erostea, 5 euroan. *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* leloa inprimatuta daramate banderak.



Antonio Mercero aretoan ari dira txertoak jartzen, egunean 300 bat. TXINTXARRI

## Izen-emateak biltzeko pedalkadak

Blas de Lezon gaua pasa, eta asteazken goizean, Andatza plazara abiatu da IGUNE ibiltaria asteon. Geltoki kalea zeharkatu, eta Hipodromo etorbidean barrena, gorantzako bidea hartuta iritsi da Euskaraldiaren bizikleta, feriara. *Photocall*-a muntatu, mahaia prestatu, eta izen-emateen kutxa ikusgarri jarrita, ahobizi edo belarripresten bila aritu dira IGUNEko arduradun Xabier Matxain eta Iñaki Gartzandia.

Izena emateko epea zabalik dago. Igande goizean, esaterako, Okendo plazara gerturatu ahal izango dira herritarrek, eta arratsaldean, Manuel Lekuona Kultur Etxera.

Azaroaren 19ra bitarte izango dute herritarrek Euskaraldian izena emateko aukera. Ordura arte, herriko bost guneetan barrena ibiliko da IGUNEa.

## IZENA EMAN DUTEN HERRITAR BATZUK

Ikusi galeria osoa [www.txintzarri.eus](http://www.txintzarri.eus) atarian







# LASARTE-ORIAN EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN  
2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra



## Ana Moreno Tecnun

Tecnun unibertsitateko Idazkaritza sailean lan egiten du Ana Moreno herritarrak. Bertan hasi zen euskara klaseak jasotzen, "praktikatzeko, entzuteko, hobetzeko, ulertzeko eta hitz egiteko". Unibertsitatean "gero eta ikasle gehiago" entzuten ditu euskaraz hitz egiten. Morenorekin ere hizkuntza horretan hitz egin ahalko dute, belarriprest izango baita herritarra, 2018ko Euskaraldian bezala.

## Joxean Belartietea Ostadar SKT



Ostadar SKT kirol elkarteko kidea da Joxean Belartietea, eta futbol eskolako gaztetxoak entrenatzen ditu. "Futbolearen presente dago erdara oraindik, baina urratsak egiten ari gara, pixkanaka. Guk, adibidez, eskolako haurrekin euskaraz hitz egiten dugu".

## Amaia Andonegi Bankoa

Bankoa banketxeko herriko sukurtsalean bi arigune sortu dituzte. "Lankideok euskaraz lan egiten dugu eta hizkuntza horretan harremantzen gara; bezeroekin ere lehen hitza euskaraz egiten dugu", azaldu du Amaia Andonegi zuzendariak. Bera ahobizia izango da, duela bi urte bezala. "Jarrera kontua da; norberak lortzen ez duena ez da bere kabuz lortuko".



## Monica De Orue Orue farmazia



"Gaztekeraren erabilera oso hedatuta dago, eta euskararena, berriz, gutxiago eta horregatik sortu dugu arigune bat; euskararen erabilera sustatzeko. Ahobizi rola aukeratu dut nik, hitz egiten dudana euskara goi mailakoa izan ez arren, moldatzen naizelako, eta praktikatzea gustatzen zaidalako, nahiz eta batzuetan ahaleginak egin behar izan".



## Ana Eceiza Ana ileapaindegia

Belarriprest gisa arituko da Ana Eceiza aurtengo Euskaraldian. "Euskal hiztuna naizen arren, euskaraz hitz egiten ez duten bezeroekin erdaraz egiten dut. Nire parte hartzearekin, euskaraz hitz egiten duten bezeroek ileapaindegian euskaraz egiteko aukera bermatu nahi dut".

**IZENA EMAN!**  
[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)





Maialen Chourraut 2019ko Munduko Txapelketako finalean. RFEF.ES

# "Bihar gertatuko dena ez dakigu. Orain gertatzen dena dakigu"

## MAIALEN CHOURRAUT PIRAGUISTA

2021. urteko Tokioko Joko Olimpikoak helburu, Pauen (Frantzia) asteburu honetan jokatu den Munduko Kopako proban lehiatuko da herritarra

### Nerea Eizagirre

Pauerako bidean hitz egin genuen lehengo asteko ostegunean Maialen Chourraut piraguiستarekin (Lasarte-Oria, 1983). Asteburu honetan jokatu den Munduko Kopako proba prestatzeko saioak egin behar zituen, baina Frantziako Gobernuak ezarri behar zituen neurriek zein eragin izango zituzten ez zekien. Egun Frantziako muga itxia dago, baina txapelketa aurrera eramango da. Lasarte-Oriako

palistarekin azkenekoz hitz egin genuenean udazken hainbat lehiaketetan parte hartzeko asmoa agertu zuen. Espainiako selekzioak talde olimpikoa babesteko erabakiak, ordea, bere jarduna murriztu du. Erabaki horri eta lehiaketa faltari buruz hitz egin dugu herritarrarekin. **Ezin izan duzu aurtengo Europako Txapelketan parte hartu Espainiako Selekzioak talde olimpikoa babestu nahi izan duelako.**

Horrela da, irailean Europako txapelketa egin behar zen Pragan.

Abuztuan bertara joan ginen txapelketa prestatzera, baina egingo ote zen jakin gabe.

Espainiako federazioak abuztu amaieran esan zuen, talde olimpikoa babesteko, taldeko kideek ez zutela Europako Txapelketan parte hartuko. Izan ere, taldea ez baitzegoen guztiz osaturik, kanoe mailako nesken ordezkaria falta zen eta aukeratze-proba egin behar zuten.

La Seu d'Urgelleko proba hori Pragako txapelketaren ostean egingo zen, beraz, txapelketan

edozer gertatu izan balitz, kutsatzeren bat edo, ezingo litzateke plaza olimpiko hori zegokion datan zehaztu. Beraz, talde olimpikoa ez zen Europako Txapelketara joan eta beste talde ofizial bat joan zen. Ni talde olimpikoan nagoenez, ez nintzen joan.

**Aukeratze-saio horretan parte hartu eta K1ean lehen postua lortu zenuen.** Bai, horrela da. Gainera, Munduko Kopako txapelketa batera joateko txartelak zeuden jokoan.

Baina guztia airean dago Frantziako gobernuak hartutako erabakien ostean. Pauen antolatzea zenez, ez dakigu egin ahalko den ere.

**Pauko Munduko kopa aipatu duzu, aurten ez duzue aukera askorik izan txapelketa horretako probetan parte hartzeko.**

Munduko Kopako probak bost ziren eta bi antolatu dira. Bat Esloveniako hiriburuan egin zen, Ljubljanan, duela bi aste. Gu ez ginen joan, herrialde gutxi joan ziren. Eta Pauekoa da bigarrena.

Gainera, beste proba bat Pragan zen, baina bertan behera utzi zuten eta Europako txapelketa antolatzea erabaki zuten. Berez, Europako Txapelketa Londresen zen maiatzean, baina ezin izan zen egin.

Aurten lehiatzeko geratzen zaidan lehiaketa bakarra Munduko Kopa da. Egiten bada, ondo, eta bestela ere bai. Dena ulertzekoa da eta onartu daiteke. **Espero zenituen baino txapelketa gutxiago egin ahal izan dituzue, beraz.**

Udara osoan ezjakintasun handia izan dugu txapelketei dagokionez, baina guk itxialditik gure helburua argi genuen, Tokio 2021, eta nire entrenamendu saioak hitzordu horri begira bideratu ditugu.

Lehiaketak egin edo ez egin, ba... Egiten badira guk aprobetxatuko ditugu lehiaketa lantzeko baina argi edukita gure helburua 2021. urtean dagoela.

Hilabete batzuk daramatzagu ikusten egoera oso ezeگونkorra dela eta emozionalki ez dugu

**"PRESTAKETA 2021. URTEARI BEGIRA DUGU, LEHIAKETAK BADAUDE ONGI ETORRIAK IZANGO DIRA**

kolpea hartzen txapelketaren bat bertan behera geratzen bada. Egoera horrelakoa da, zaila da eta jende asko gaizki pasatzen ari da.

Guk prestaketa 2021. urteari begira jarri dugu, lehiaketak badaude ongi etorriak izango dira eta oraindik gehiago ikasteko aprobetxatuko dugu. Baina ez badaude, aurrera jarraituko dugu lanean.

**Baina lehia gutxi egoteak, Tokioko prestaketa zaildu dezake.**

Azken finean gehiengoari gertatuko zaiona da.

Tokiara iristeko urte bete baino gutxiago geratzen da. Orain egingo ditugun txapelketak pista bat eman dezakete, baina oraindik asko falta da.

Aldi berean, nazioartean egin diren kontrol proba batzuk egiten joan gara eta frantsesek antolatzen dituzten lehiaketa batzuetan entrenamendu modura, La Seu d'Urgellen egindako aukeratze-proba egin genuen, beste neska batzuekin ere lehia modu entrenamenduak egiten saiatu gara. Eta lehiaketen faltan, horrelako probekin goaz pixkanaka prestatzen.

Hurrengo urteari begira, dena airean dago. Egunetik egunera gauzak asko aldatzen dira. Bihar gertatuko dena ez dakigu. Orain gertatzen dena dakigu.

Badugu ektura batur bat pentsatuta, baina ikusiko da zer gertatzen den. Aurrera badao lehiaketa batzuk egingo ditugu. Jokoak baino lehen eta horiekin saiatuko gara lehiaketari puntua hartzen.

**COVID-19aren aurka hartutako azken neurriek zein eragin du zure jardunean?**

Gu Pauera asko joaten gara entrenatzera eta azken egunetako berrien arabera, eragina handia izan daiteke.

Oso kanal ona da Pauen dagoena eta asko baliatzen gara hortaz. Pauera joan ezingo banu, entrenatzeko aukera handi bat galtzen dugu.

Baina aurtengo urtea adaptazio urtea da, ezjakintasun honekin aurrera ateratzeko urtea eta bakoitzak daukan onena atera behar du. Egoera honi aurre egiteko gai bagara, lehiari begira indartsuagoak izango garela uste dut. Izan ere, dauzkagun baliabideak ahal dugun modu onenean aprobetxatu baititugu. Modu positibo batean hartu behar da.

# Aitor Manso, Mendi Igoeretako podiumean

Lasarte-Oriako gazteak bere mailako hirugarren postua eskuratu bere lehen urtean. Herritarra pozarren dago egindako lanarengatik. Nahiz eta denboraldi motza izan, bere ahultasunez jabetu eta hurrengo denboraldirako moldaketetan pentsatzen ari da

## Txintxarri

Euskadiko Mendiko Igoeren txapelketa amaitu da. Urriaren 18an Urrakiko igoerarekin eman behar zitzaion amaiera denboraldiari, baina proba bertan behera geratu zen, lehen beroketan ezbehar bat geratu ostean. Aurten beraz, bi proba bakarrik jokatu dituzte parte-hartzaileek, Aitor Manso herritarra barne: Andatzatik Aiara eta Jaizkibelgo igoeretakoak. Horietan lortutako puntuek 8. klaseko txapelketako podiumera eramanez dute herritarra, brontzezko postura hain zuzen ere. Gipuzkoako Txapelketan ere postu bera lortu du, hirugarrena.



Aitor Manso denboraldi honetako probetako batean lehiatzen. AITOR MANSO

Urrakiko igoera Euskadiko Mendiko Igoera txapelketako azken proba zen. Lehen igoera jokatzeko ari zela, proba eten behar izan zuten Tracking RC01 kotxeak istripua izan baitzuen. Erreskate taldea gerturatu zen, baina ezin izan zuten gidariaren bizia salbatu. Ondorioz, proba bertan behera geratu zen.

Irteera lerroan zen Aitor Manso gaztea istripuaren berri eta bere ondorioen berri izan zuenean. "Irteteko gutxi geratzen zitzaidan eta ezin izan nintzen atera. Pena handia da horrelako ezbehar bat gertatzea. Urte pila da horrelako istripurik ez zegoela, baina horrelakoak izan daitezke lasterketan", adierazi du.

## Brontzezko postua

Nahiz eta Urrakin ezin parte hartu, aurten bi probatan lehiatu du Lasarte-Oriako gidariak eta esperientzia ona izan dela azpimarratu du. "Lehenengo urtea dut mendi igoeretan eta esperientzia ona izan da".

Bi proba bakarrik izan arren, lasterketa bakoitzeko txandetan hobetzen joan da herritarra eta egindako lanarengatik 54 puntu

eskuratu ditu. Horiei esker, 8. klaseko hirugarren postua lortu du Mansok eta pozarren dago horregatik.

Ez da sari banaketarik izango, ordea. Lasarte-Oriako gidariak jakitera eman duenez, "egun bizi dugun egoera dela eta, ez da sari banaketa jendetsua egingo eta bakoitzari bere saria eramango zaio etxera".

## Denboraldi osoa

Hala ere, aurtengo denboraldian proben falta sumatu duela onartu du. "Bizi dugun egoerak asko baldintzatu du aurtengo denboraldia, normalean bederatzi bat probako denboraldia da eta aurten hiru besterik ezin izan dira antolatu; eta tamalez, bi bakarrik lehiatu dira guztiz. Ea hurrengo urtean denboraldi osoa egin edo behintzat txapelketa serioago bat antolatu daitekeen".

Horretarako prestatuko da behintzat Aitor Manso. "Nahiz eta denboraldi honetan esperientzia gutxi bildu, gutxi horrek gure hutsuneak ezagutzeko balio izan digu eta kotxea eta ni hobeto prestatzeko aukera izango dugu".

## BERTSO ANTZERKIA Urpekariak

azaroak 13, **OSTIRALA**, 18:00 Suteği **SARRERAREKIN**  
haur eta gaztetxoentzat (6-11 urte)

## KONTZERTUA ETA FILMA Peru Galbete

azaroak 14, **LARUNBATA**, 20:00 Suteği **SARRERAREKIN**

## FILM ETA SOLASALDIA Oskar Alegriaren Zumiriki

azaroak 15, **IGANDEA**, 18:00 Suteği **SARRERAREKIN**

## KONTZERTUA Anari, Malen&Maddi

azaroak 20, **OSTIRALA**, 20:00 Suteği **SARRERAREKIN**

## DANTZA Korrontzi Dantzan + ORBELDI dantza taldearekin

azaroak 21, **LARUNBATA**, bi saio 18:00 eta 20:00 Suteği **SARRERAREKIN**

## ANTZERKIA Fadoak entzuten zituen gizona

azaroak 22, **IGANDEA**, 18:00 Suteği **SARRERAREKIN**

**Sarrerak:** Lizardi eta Noauan aldeez aurretik. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaua!ko egoitzan



**NOAUA!KO KULTURALDIA 2020**

**USURBIL  
AZAROA**



**noaua**

# Denboraldiko hirugarren garaipena Badajozen

Iberdrola Ligako bosgarren jardunaldia jokatu du Real Sociedad taldeak. Iraia Iparragirre herritarra kide duen taldeak Santa Teresa taldea 0-4 garaitu du. Igandean, UD Granadilla Teneriferen aurka jokatuko dute ikuslerik gabe

## Txintxarri

Liga ez profesionalak etenda dauden arren, futbol zaletuek badute Santander Liga edo Iberdrola Ligarekin jarraitzeko aukera. Asteazkenean, Iberdrola Ligako jardunaldi berria jokatu zuen Real Sociedad taldeak eta 0-4 irabazi zion Santa Teresa taldeari.

Iraia Iparragirre kide duen taldeak Madrilen aurka galdu zuen urriaren 31n denboraldi honetako lehen partida eta arantzatxoa kendu nahi zuen. Aurretik Levante eta Deportivo Abancari irabazi zien taldeak 3-2 eta 0-2, hurrenez hurren.

Natalia Arroyoren jokalaria garaipena buruan zutela atera ziren zelaira. Badajozko taldeko atezainak lan ederra izan zuen txuri-urdinen erasoak geratzen.

30. minutura arte itxaron behar izan zuen Realak baloia sarean sartzeko. Leire Bañosi penaltia egin eta Barbarak zigor kolpea sartu zuen.

Minutu gutxira, Nuria Mendozak falta zuzena jaurti eta talde txuri-urdinaren bigarren gola egin zuen.

Atsedendia baino lehen aukera gehiago izan zituen Natalia Arroyok zuzentzen duen taldeak partida guztiz erabakitzeko.



Real Sociedad taldeko jokalaria gola ospatzen. LA LIGA

Bigarren zatian ere, erritmo berarekin atera zen Real eta erasoan min egin zion arerioari. Leire Bañosen area barruko jaurtiketa batek hirugarren gola ezarri zuen markagailuan eta Nahikarik azken gola egin zuen jaurtiketa indartsu bati esker.

Iraia Iparragirre herritarrak partida osoa jokatu zuen eta bere aletxoa jarri zuen defentsa lanetan.

Realeko jokalariek denbora gutxi izango dute indarrak berreskuratzeko, igandean, 12:00etan, UD Granadilla Tenerife izango baitute arerio, Zubietan.

Levanteko partidari ez bezala, bazkiderik ez da izango talde txuri-urdinari babes emateko. "Pandemiaren egoerak gure instalazioak jendearentzat itxita edukitzera behartzen gaitu", adierazi du Realak.

## Oiartzunen aurka

Egun eta ordu horretan bertan, bost kilometrora, Rezolako zelaian Añorgak Oiartzuni egin beharko dio aurre.

Aste beteko atsedenen ostean, Javi Solchagak zuzentzen duen taldea garaipenaren bila aterako da beste behin.

# Udazkeneko denboraldiko xehetasunak argitzen

Donostiako Hipodromoko ezohiko denboraldiko lasterketak eta ordutegia jakitera eman dituzte


## Txintxarri

Dena ondo bidean, azaroaren 13an, Donostiako Hipodromoko udazkeneko denboraldiaren lehen hitzordua izango da.

Dos Hermanaseko Hipodromoaren denboraldia bertan behera geratu ostean, ez ohiko lau jardunaldiko denboraldia biziko du Hipodromoak. Ez zen horrelakorik gertatzen 2005 urtetik. Orduan udaberri izan zen denboraldia.

Antolatzaileek hainbat xehetasun orokor jakitera eman dituzte. Guztira hoge lasterketa lehiatuko dira, horien artean, hiru handicap edo bi urteko zaldientzako bereziki antolatutako hiru lasterketa, baita hiru urteko maidenetzako beste bi ere. Lasterketa guztiak, gainera, belarreko pistan egingo dira.

Sariei dagokienez, guztira 135.150 euro banatuko dituzte eta lasterketa bakoitzeko irabazleak 3.500 eta 5.500 euro arteko saria eskuratu dezake. Ordutegiaren berri ere eman dute, azaroaren 13an, 20an eta 27an 14:45ean hasiko dira lasterketak; abenduaren 8an, berriz, 11:45ean.



Udako denboraldiko irudia. TXINTXARRI

Oraindik zehazteke dago zenbat ikusle egon ahalko diren harmailetan. Izan ere, COVID-19aren aurkako neurriek ikusle kopurua murrizten baitute.

## Madrilen garaipena

Bestalde, Raul Ramos jockeyak Zarzuelako Hipodromoko 79. urteurreneko Sari Nagusia marra gainean eskuratu zuen, azaroaren 1ean, Guillermo Arizkorreta prestatzailearen My Flinders behorra gidatuta.

Lasarte-Oriako jockeyak bere 20 urteko ibilbidean lortzen duen lehen sari handia da.

# Udalak Lasarte-Oriako sei kirol elkarteri laguntza eskainiko dio

Lasarte-Oriako Udalak guztira 67.983 euro banatuko ditu herriko kirol elkarten artean 2020. urtean

## Txintxarri

2020 urteko diru laguntzak ebatzi ditu Lasarte-Oriako Udalak. Guztira 67.983 euro banatuko dituzte herriko sei kirol

elkarteren artean. Kirol taldeen eskaerak jaso ostean, Kirol batzordeak egindako proposamena onartu du Alkatetzak.

# Joaquin Solek, zilarra

North Team taldeko Joaquin Solek Fisiokulturismoko Espainiako Txapelketan parte hartu berri du, Marbellan (Andaluzia). Neurri handiko Men's physique mailan parte hartu zuen Alberto Gonzalez herritarrak entrenatutako asturiarrak eta zilarrezko domina eskuratu zuen. Asteburu honetan, Santa Susannan (Katalunia) ospatzen den Munduko txapelketan izango da lehiari.




ALBERTO GONZALEZ

## 2020 urteko diru laguntzak

Ostadar SKT	30.327,91 euro
LOKE Lasarte-Oria Kirol Elkarte	12.071,20 euro
Texas Lasarte	8.064,49 euro
LOTME Mendi Kluba	7.972,39 euro
Eguzki Areto Futbola KE	5.730 euro
Intza KE	3.817,01 euro

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



**Begoña**  
Zorionak munduko amona onenari zure 90. urtebetetzean, familiaren partetik.



**Maite eta Manolo**  
Zorionak bikote, zuen ezkontzaren urteurrenean! Ospatzen jarraitu dezagula! Semearen partetik.

JAIOTAKOAK

**Naira Lerchundi Pellejero.** Azaroaren 30ean.

HILDAKOAK

**Encarnacion Ruiz Sainz.** Azaroaren 31n.  
**Ana Fuentes Ciria.** Azaroaren 31n.  
**Florentina Arruti Jonsansoro.** Azaroaren 30ean.  
**Luis Mari Otegui Lazaro.** Azaroaren 30ean.


TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 607 625 233


**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZTA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 6




Larunbata, 7




Igandea, 8




Astelehena, 9




Asteartea, 10



Asteazkena, 11



Osteguna, 12



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 6 DE MIGUEL  
LARUNBATA, 7 URBISTONDO  
IGANDEA, 8 URBISTONDO  
ASTELEHENA, 9 GANDARIAS-URIBE  
ASTEARTEA, 10 DE ORUE  
AZTEAZKENA, 11 URBISTONDO  
OSTEGUNA, 12 LASA

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

SUDOKUA

2	4					5
		6		2	7	
				4	3	2
4		2	7			3
			9			8
		3	2			
	5		3			2
		1	4	7		
9			8	5		1

OHARRA

Zuberoko ikastolen Gabonetako saskiak

2003tik, Zuberoko ikastolek gabonetarako saskiak prestatzen dituzte tokiko ekoizpenekin. Ipar Euskal Herrian euskarak ez du babes ofizialik. Euskararen etxeko transmisioa Zuberoan eteten ari den heinean, ikastolek euskararen transmisioa bermatzen dute.

Ekimenaren helburuak bi dira Zuberoko ikastolak laguntzea eta Zuberoko ekoizpenak ezagutaraztea eta dastaraztea.

3 saski mota daude: Ahuzki, 40 euro; Irati, 55 euro eta Orhi, 70 euro. Saskien zehaztasun guztiak eta eskaerak [www.ikaskoli.eus](http://www.ikaskoli.eus) orrialdean egingo dira. Bertan agertzen dira saskien banaketa guneak ere.



Errigora

Errigoraren Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpaina ate joka dago eta AEK, Sortzen eta Ikastolen elkartearekin elkarlanean egiten dugun kanpaina honetan Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako saskiak eskatzeko epea larunbat honetan zabalduko da eta azaroaren 12an itxiko dute.

Aurten berrikuntza bat dakarte: bi saski eskaini beharrean hiru eskainiko dituzte: Beltza (klasikoa) 50 euroren truke; Berdea (ekologikoa) 60 euroren truke eta Zuria (Berezia) 70 euroren truke. Eskaerak online egin behar dira <https://www.errigora.eus/euskarari-puzka-2020> atarian.

## AZOKA TXIKIA

**LANA**  
**ESKARIA**  
Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. 663 488 438.  
Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauean edo ospitalean gauek egiteko prest. 634 278 198  
Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067  
Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.  
Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

**ETXEBIZITZAK**  
**EROSI**  
Apartamentu txiki bat bilatzen ari naiz erosteko, Lasarten. Logela batekin nahiko. Igoigailuarekin. Ez dut nahi atikoa ezta lofta ere ez. Nire telefona 660 552 353 da.  
**IKASTAROKA**  
**ESKARIA**  
Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313/bentley.ma@gmail.com  
Txokoalden, tren geltoki zaharrea, balaparta klaseak ematen ditut. tagoredoremi@gmail.com edo 678 071 041 (Whatsapp ez)  
**SALEROSKETA**  
**SALDU**  
Bigarren eskuko Silver

Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.



**NABARMENDU ZURE EDUKIA**  
Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo handia. 20€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

## GUTUNAK

### Herritarrei eta Lasarte-Oriako Udalari: minbizia sor dezaketean hondakinak hilerrian

#### JESUS UZKUDUN ILLARRAMENDI, EUSKADIKO AMIANTOAREN BIKTIMEN ELKARTEKO KIDEA

Profesional arduragabeko batek Uralita edo fibrozementuko plaka batzuk kendu zituen estalgune batetik, baimenduta egon gabe eta horrelako substantzia kantzerigeno bat maneiatzeko legeak ezarrita dituen segurtasun neurririk gabe. Behin kenduta, gauean eta azpikeriaz hilerriko aparkalekuan utzi zituen. Zigorgabetasun osoz jokatzeko utziko diegu?

Ziur nago (bertan hilabete asko daramatela dirudi) udal langile edo herritarren batek ikusi duela eta garrantziarik eman ez diola. Eta hori larria da.

Amiantoak, nahiz eta bere merkaturatzea debekatua egon, 88.000 heriotza eragiten ditu urtean Europan. Fibrozementua guztiz


arriskutsua ez kontsideratzea erdizkako egia da. Bota dituzten materialek eta instalatutako material gehienek balio-bizitza iraungita dute (35-40 urte), eta egoera horretan zuntz kantzerigenoak askatzen dituzte.

Horregatik, uste dut Lasarte-Oriako Udalak erreakzionatu egin behar duela, langile espezializatu eta egiaztatuak erabiliz, hondakin plastikoz paketatuz eta hondakin arriskutsuen kudeatzaile bati eramanaz. Horrekin batera, instalatua dagoen amiantoa inbentariatu, kontrolik gabeko isurketak kontrolatzeko plana onartu (nork eta nola erretiratzeko dituen kontrolatu) eta arau-hausleak jazarri beharko litzuzke, osasunaren eta ingurumenaren aurkako delituengatik Fiskaltzan salaketak jarrita.

Iruzur egitea legezko eskakizunak betetzea baino merkeagoa da, praktika kriminal horiek kontrolatu eta zigortzen ez baditugu behintzat. Horretarako, guztion konpromisoa behar dugu.



## MANNTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**  
Iratzi Zatarain.

**Laguntzaileak**  
Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

**Banatzzaileak**  
Julene Iraola eta Uxue Odriozola,  
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose  
Lanchas, Iñigo Garcia, Igone  
Mendizabal eta Lide Hidalgo.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**  
Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

**Inprimategia**  
Zero Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 6

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu Zurlanketa elkarteko kideek urtean zehar egindako lanen erakusketa ikusgai dago azaroaren 15era arte.

Antonio Mercero gunea. Astean zehar, 18:00etatik 20:00etara; larunbata eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara.

### ANDOAIN Kontzertua

Liana Gourdjia biolin joleak eta Josu Okiñena piano joleak kontzertua eskainiko dute. Euskal Herriko egile ezagunen doinuek osatuko dute egitaraua. Santa Zezilia eguneko egitarauaren barruko ekintza da. Bastero kulturunea, 21:30ean.

### ANDOAIN Erakusketa

Paladin erakusketa ikusgai izango da abenduaren 5era arte. Eremuak-Harriak proiektuan parte hartu duten Miren Barrena, Leire Lacunza eta Ibon Landa artisten lanak dira. Bastero kulturunea. Astean zehar, 18:30etik 20:30era; larunbata, 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era. Astearteetan, igandeetan eta jai egunetan itxita.

## LARUNBATA 7

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Kaskarot haurrentzako antzerkia taularatu du ATX teatroak. Sarrera, 3,80 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Lasarte-Oriako Ostalaritza elkarteko bizi duten egoera latza salatzen manifestazioa egingo du herriko kaleetatik barrena. Ekitaldian parte hartzeko deia luzatu die gremioan lan egiten duten pertsonari. Okendo plaza, 17:30ean.

### USURBIL Antzerkia

1620 Nafarroa beheregaina antzezlan eskainiko du. Edukiera murritzua izango du, 78 pertsona eta sarrerak izen-emate bidez banatuko dira. Azaroaren 6ra arte, *usurbilkultura.eus* atarian egin daiteke sarreraren eskaera. Sutegiko auditorioa, 17:00etan.



**LASARTE-ORIA Antzerkia.** ATX Teatro taldeak *Kaskarot* haurrentzako antzerkia eskainiko du. Hiru eta bederatzi urte arteko haurrei zuzendutako lana da. Aner istorioaren protagonista gizarte distopiko batean bizi da. Dantzatzea du gustuko, baina bere munduan dantzatzea debekatua dago. Ondorioaz, askotan arazo larriak ditu. Anerrek Kaskarot, bere alter egoa, du lagun egoera horri aurre egiteko. Kaskarotek ingenioa eta zentsua erabiliko ditu Anerri bere adierazpen askatasuna lehenesten ikasteko. Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata 7, 17:00etan.

## IGANDEA 8

### LASARTE-ORIA Bertso saioa

Bertsolaritza eta musika uztartu dira oholitza gainean *Udaberriko bertso saioa udazkenean* ikuskizunean. Ane Labaka, Miren Amuriza, Alaia Martin eta Miren Artetxe izango dira bertsotan eta Amaia Agirre izango da gai jartzailea. Musika Gari Otamendi eta Aritz Bizkalen esku izango da. Sarrera, 5,50 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

## ASTEARTEA 10

### HERNANI Antzerkia

Xake produkzioak *Fadoak entzuten zituen eguna* antzezlan eskainiko du. Sarrera, 7,5 euro. Eskuragarri daude dagoeneko Biteri kultur etxean honako ordutegian: goizez 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Biteri kultur etxea, 20:00etan.

## ASTEAZKENA 11

### LASARTE-ORIA Opera digitala

Opera zaletuek Giuseppe Verdiren *Emani* obraz gozatzeko aukera izango dute. 1982an, Milango Scallan grabatutako emanaldia da eta Verdi hobekien abesten duten lau abeslari batu ziren

eszenatokian: Plácido Domingo, Renato Bruson, Nicolai Ghiaurov eta Mirella Freni. Emanaldia jatorrizko hizkuntza eskainiko da gaztelaniako azpidatizkiekin. Sarrera aurrez, 7,5 euro; egunean bertan, 9 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

### USURBIL Literatur solasaldia

Harkaitz Cano herritarak idatzitako *Enseres de ortopedia inútil* kontakizun laburren liburua izango da mintzagai, idazlea bera bertan izango delarik. Saioren gidaritza lana, Ana Merinoren esku egongo da. Edukiera mugatua izan du ekitaldiak eta aurrez izena eman behar da liburutegian, 943 360 692 zenbakian. Sutegiko auditorioa, 19:00etan.

## OHARRA

TXINTXARRI aldizkariak agenda hau argitaratu duen egunera arte, bertan proposatutako ekintzak ez dute aldaketarik jasan koronabirusa dela eta.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Las niñas**  
Ostirala: 21:00.

### HERNANI

#### BITERI

**Akelarre**  
Larunbata: 19:30.  
Igandea: 19:30.  
Astelehena: 16:30.

**Bihurri, jauretxetik kale gorri**  
Larunbata: 16:30.  
Igandea: 16:30.

### ANDOAIN

#### BASTERO

**Como perros y gatos: La patrulla unida**  
Larunbata: 17:00.  
Igandea: 17:00.

### USURBIL

#### URBIL

**Las brujas (de Roald Dahl)**  
Ostirala: 16:10, 17:50, 19:00, 20:10.  
Larunbata: 16:10, 17:50, 19:00, 20:10.  
Igandea: 16:10, 17:50, 19:00, 20:10.  
Astelehena: 16:10, 17:50, 19:00, 20:10.  
Asteartea: 16:10, 17:50, 19:00, 20:10.

**Trolls 2. Gira mundial**  
Ostirala: 15:50, 16:50, 18:20, 19:20.  
Larunbata: 15:50, 16:50, 18:20, 19:20.  
Igandea: 15:50, 16:50, 18:20, 19:20.

18:20, 19:20.  
Astelehena: 15:50, 16:50, 18:20, 19:20.  
Asteartea: 15:50, 16:50, 18:20.

**Jóvenes y Brujas**  
Ostirala: 16:00, 18:40, 19:50.  
Larunbata: 16:00, 18:40, 19:50.  
Igandea: 16:00, 18:40, 19:50.  
Astelehena: 16:00, 18:40, 19:50.  
Asteartea: 16:00, 18:40, 19:50.

**Sentimental**  
Ostirala: 18:00, 20:50.  
Larunbata: 18:00, 20:50.  
Igandea: 18:00, 20:50.  
Astelehena: 18:00, 20:50.  
Asteartea: 18:00, 20:50.

**Akelarre**  
Ostirala: 20:40.

Larunbata: 20:40.  
Igandea: 20:40.  
Astelehena: 20:40.  
Asteartea: 20:40.

**Emma**  
Ostirala: 17:00.  
Larunbata: 17:00.  
Igandea: 17:00.  
Astelehena: 17:00.  
Asteartea: 17:00.

**No matarás**  
Ostirala: 20:20.  
Larunbata: 20:20.  
Igandea: 20:20.  
Astelehena: 20:20.  
Asteartea: 20:20.

**Toy Story 4**  
Larunbata: 17:10  
Igandea: 17:10.

**Ant-Man y la Avispa**  
Asteartea: 19:30.

**Greenland: El último refugio**  
Ostirala: 16:30.  
Astelehena: 16:30.  
Asteartea: 16:30.



## LABURPENA

### Las niñas

**Zuzendaria eta gidolaria:** Pilar Palomero. **Argazkia:** Daniela Cajías. **Musika:** Juan Carlos Naya **Herr.:** Espainia (2020). **Antzezleak:** Andrea Fandós, Natalia de Molina, Carlota Gurpegui, Zoe Arnao, Julia Sierra, Francesca Piñón, Álvaro de Paz, Mercè Mariné, Jesusa Andany, Maite Sequeira, Laura Gómez-Lacueva, Leonor Bruna. **Iraupena:** 100 minutu.

## Iragana eta etorkizunaren artean

Okendo zinema taldeak *Las niñas* filma dakar Zine forumera. Gogoratu, COVID-19aren aurkako neurriak direla-eta, saioa 21:00etan hasiko da.

Gidoilari bezala lan egin eta hainbat dokumental eta film labur grabatu ostean, Pilar Palomero zuzendariak *Las niñas*, bere lehen film luzea aurkeztu zuen Berlingo Zinema-jaialdian Generation Kplus sailean aurkeztu zen. Film Onenaren Urrezko Biznaga eskuratu zuen Malagako Zinema-jaialdian, baita argazki onenaren saria eta Feroz saria ere. Donostiako Zinemaldian Made in Spain sailan ikusi ahal izan zen filma.

1992. urtean, Expoaren eta Joko Olimpikoen Espainian dago girotua filma eta iragana eta etorkizunaren artean bizi den gizartea erakusten du.

Celia 11 urteko neskatua Zaragozako moja-eskola batean ikasten ari da. Bere amarekin bizi da. Alargun geratu ostean, biak aurrera ateratzeko lan egin behar du eta ez dago ia etxean. Brisa ikaskide berria da, Bartzelonatik etorria, eta Celia bultzatuko etapa berri baterantz bultzatuko du: nerabezarorantz. Bidaia horretan, Celiak bizitza egia eta gezurrez osatuta dagoela ohartuko da.

# Arimen II. Biltzarra, telematikoa

## Pandemiagatik desberdin egin arren, Gau Beltza ospatu dute herritarrek aurten ere

Guk dakigula behintzat, banpiro, mamu, zonbi eta bestelako izaki ilun bat bera ere ez da joan Loidibarren pilotalekura PCR proba egitera, jakiteko koronabirusa ote daukan ala ez. Dena dela, erabaki dute arimen aurtengo biltzarra presentzialki ez egitea, munstro pilaketarik egon ez zedin, badaezpada ere. Horrek ez du esan nahi aurtengo Gau Beltza ospatu ez dutenik: sinbolikoki izan bada ere, kalabazak hustu dituzte eta beldurrak piztu.

Herritarrek argazki ederrak bidali dituzte TXINTXARRI aldizkariaren erredakziora; galeria eder (edo beldurgarri) bat egiteko adina. Izan da urriaren 31n Teresategi mendira joan zenik, edo kalera herritarren bati susto eder bat emateko moduan irten zenik ere. Ttakun Kultur Elkartearen Gazte Kluba egitasmo gazteek egun bat lehenago ospatu zuten Gau Beltza, Ttakunenean, giro ederrean. Handik eta hemendik jasotako argazkiekin lehiaketa bat antolatu dugu Txintxarri aldizkariaren atari digitalean. Bozkak jasotzen hasi gara, eta iritzia emateko epea amaituko da azaroaren 11n, asteazkena, egun hori barne. Bozka emateko <https://txintxarri.eus/lehiaketa/1604323989816> helbidean sartu beharko dute irakurleek, behean ikusten diren hamalau argazki horietatik hiru onenak zeintzuk diren aukeratu ahal izateko. Argazki irabazleak familia osoarentzat prestatutako produktu sorta eramango du etxera. Animatu eta parte hartu!

